

**EAJ-PNV eta PSE-PSOE talde politikoek honako mozioa aurkezten dute:**

## **KONEKTATU ENERGIA TRANTSIZIOAREKIN**

### **MOZIOA**

Trantsizio energetikoari aurre egiteko lanak – nahiz eta termino hori garai hartan normalizatuta ez egon – bultzatu zuen Eusko Jaurlaritza duela ia 40 urte Energiaren Euskal Erakundea sortzera. Petrolioarekiko mendekotasuna garrantzitsua zen, eta da oraindik ere. Orduetik, Euskadik energia berriztagarriak, eraginkortasuna eta baliabide propioen aldeko apustua bultzatzen ditu, energia-eredu berri baterako trantsizio-prozesu horri aurre egiteko.

Euskal gizarteak bere energia-eskaerari erantzun behar dio, eta euskal energia-ereduak gero eta jasangarriagoa den eredu baterantz migratzen jarraitzen du. Eredu horrek kalitatezko hornidura lehiakorra bermatuko du, berriztagarrien ekarpen gero eta handiagoan oinarrituta eta petrolioaren deribatuen erabilera minimizatuta. Herritarrak gero eta gehiago jabetzen gara klima-aldaketak dakarren erronkaren erantzule ere bagarela. Honek, gaur egun, bultzada handia ematen die Euskadin energia demokratizatzeke eta ingurumenarekiko berme osoz egiteko egokitu ditzakegun politikiei.

Euskadi energia-eskaera handiko herrialdea da, batez ere industria-izaeragatik, baina garraioa da energia gehien kontsumitzen duen sektorea (kontsumitzen den energia guztiaren % 43). Enpresek merkatu elektrikorako sarbidea behar dute, baldintza lehiakorretan, ekonomiaren zati handi bat eta kalitatezko enplegu asko horren mende daudelako.

Balantzaren beste aldean, beste errealitate bat dugu: energia gutxi ekoiztea. Horrek kanpora erostera behartzen gaitu, eta beste batzuek ezartzen diguten prezioan egitera. Autosufizientzia eta burujabetza energetiko falta horrek elektrizitatearen prezioari eragiten dio, gure etxeetako argi-fakturari, batez ere ahulenei, eta gure enpresei eta haien lehiakortasunari.

Euskadin gas propioa ez kudeatzeari buruz hartutako erabakiak gure energia-eskariaren prezioak gora egitea ekarriko du datozen hilabeteetan; izan ere, Araban daukagun gasa ekoizteari uko egin bazaio ere, EAEko familiek gas bat kontsumitzen dute, ondorioz, inportatu egiten da, horrek suposatzen duen ekonomia- eta ingurumen-kostuarekin inportatzen da.

Demagogia- eta amorru-diskurtsoak zabaltzeaz harago, gure esku dauden ekimenekin jardun behar dugu. Irakurketa sinplista eta partzialetatik harago, eraikitzaileak izan behar dugu, eta ez ditugu baztertu behar ingurumen- eta energia-erronkari aurre egiteko bideak. Mota guztietako berriztagarriak (eta biltegiatze-soluzioak) areagotzea, parke eolikoak eta fotovoltaiakoak barne, eta energia aurrezteko funtsezkoak dira Euskadiren subiranotasun energetikorako bidean.

**Premisa horiek aintzat hartuta, TOLOSAKO UDALAK honako hau proposatu du:**

**1.- Udal honetan ordezkaturik dauden alderdiek Euskadin energia berriztagarriak ezartzeko eta energia aurrezteko duten konpromiso politikoa berrestea.**

**2.- Herritarren kontzientzia zorrotz eta egiazkoa sortzen laguntzea, trantsizio energetikoarekin eta klima-aldaketaren erronkarekin bat etorritik jardutea errazteko.**

3.- Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde- eta toki-erakunde guztiei (aldundiak, udalak, mankomunitateak, kuadrillak) eskatzea trantsizio energetikoan beren zeregina betetzen jarrai dezatela eta efizientzia, berriztagarriak eta energia kudeatzeko kooperatibak eta energia-komunitateak bultzatzeko faktore erabakigarriak sar ditzatela.

4.- Herritarrei dei egitea energia-komunitateen autokontsumo formulekin bat egiteko aukera baloratu eta aztertzeko.

5.- Eremu ekonomiko, sozial, politiko eta akademikoko eragile publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzea, energia-eskariak eta haren prezioak dakarten erronka komunari irtenbideak elkarrekin sortzeko.


Tolosa, 2021eko irailaren 27an

EAJ-PNV



Joseba Ormazabal Lopez

PSE-PSOE



Jose Mª Villanueva Telleria